

Donostia, 2017ko martxoaren 24a

UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, LARRATXOKO PARKEA ESTALTZEAZ

Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, OSOKO BILKURAN azter dadin. Mozioa, 2017ko martxoaren 20ko Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak), Larratxoko haurrentzako parkea estaltzearen inguruan egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Hil honetako Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) adierazi dugun bezala, Larratxoko Osteguna auzo elkarteak, bere aldizkariaren bidez jakinarazi duenez, pozik hartu du auzoko parkea berritzeko albisteak. Gainera, bizilagunek ere parte hartu dute. Hala ere, gune hori estaltzeko aspaldiko aldarrikapenari eutsi diote; izan ere, Larratxok umeentzat duen instalazio apurretakoa da parke hori, eta horrela euria ari duenean ere erabili ahal izango litzateke espazioa.

Udal Gobernuak batzorde teknikoa eratu zuen, estal daitezkeen haurrentzako parkeak aztertzeko: Altzako Harria parkea, Egiako Martin Santos plaza (Plaza Handi) eta Groseko Zuberoa plaza.

Batzordean, zinegotzi ordezkariari galdetu genion ea Udal Gobernuak aztertu duen estal daitezkeen instalazioen artean Larratxoko parkea sartzeko aukera, auzoko parke txiki hori asko erabiltzen dela ikusirik bizilagunek egindako aldarrikapena aintzat hartuta.

Zoritxarrez, erantzun zigun Harria parkea estaltzeko lanak hasita daudela, eta ez dela beharrezkoa gune horretan esku hartze gehiagorik egitea. Nolanahi ere, Larratxoko parkea erabiltzen duten umeak ez dira neurri berean joaten Harria parkera, urrun ez badago ere (1,5 km inguru), ibilbidea ez

baita laua eta gainera adingabeekin joan beharra baitago. Hori dela eta, Harria parkea ezin da izan Larratxokoaren alternatiba, hori baita gune horretako umeez egunero-egunero erabiltzen dutena.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Larratxoko haurrentzako parkea estal dezala.

Izpta.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia.